

Lankidetzaren Publiko Pribatuko Jardunbide Egokien Dekalogoak



Lehiaren Euskal Agintzaritza
Autoridad Vasca de la Competencia



Lankidetza publiko-pribatua formula ezin hobea da zerbitzu publikoak hobetzeko eta eraginkortasun, efizientzia eta kalitate handiagoa lortzeko.

Alde batetik, lankidetza publiko-pribatuaren ereduak helburu publikoak betetzea errazten du (eraginkortasuna); izan ere, administrazio publikoek erakunde pribatua kontratatzen dute (irabazteko asmoarekin edo asmorik gabe), espezializazio eta ezagutza handiagoa baitu sektorean.

Bestetik, lankidetza publiko-pribatuak aurreztea eta ekoizpenean eta zerbitzuak ematean kostuak murriztea errazten ditu (efizientzia), ez bakarrik kostu finkoak erakunde laguntzaileari eskualdatzen zaizkiolako, baita sektoreko erakunde lehiakorrenarekin lankidetzan aritzen delako ere; izan ere, erakunde horrek ahalik eta kostu txikienarekin eman dezake zerbitzu publikorik onena, eta, gainera, berritu egin dezake inbertsio handirik egin gabe.

Halaber, lankidetza publiko-pribatuak ere balio soziala ekar dezake; izan ere, administrazio publikoek, estrategia hori erabiliz, gure garaiko arazo sozial ugariak konpontzen jarrai dezakete, nahiz eta ez eduki horretarako beharrezkoak diren baliabideak (ekonomikoak, teknologikoak, etab.) eta gaitasunak (espezializazioa, expertise)

Hala ere, nahiz eta lankidetza publiko-pribatuak abantaila nabarmenak sortu enpresentzat, lehiakortasunari eta berrikuntzari dagokienez, lehia askearen defentsaren ikuspegitik aztertu beharreko arriskuak ere baditu.



LANKIDETZA PUBLIKO ETA PRIBATUKO JARDUNBIDE EGOKIEN DEKALOGOA



1. Erakunde publikoek neutraltasuna erakutsi behar dute enpresa pribatuekiko, edozein enpresak beti izan dezan zabalik lankidetzaren bidea.



2. Erakunde publikoek kasuan kasuko sektoreko enpresa guztien klusterretan eta zentro teknologikoetan parte hartzea sustatu behar dute, baina betiere enpresa bakoitzaren askatasuna errespetatuz.



3. Erakunde publikoek finantzazio egokia bermatu behar diote zentro teknologiko bakoitzari, ezagutza enpresa-mundura transmititu dadin errazteko.



4. Lankidetzaren publiko-privatuko horrelako proiektuetan parte hartzen duten erakundeek irekita egon behar dute sektoreko enpresa guztiek parte har dezaten, betiere enpresa bakoitzaren askatasuna errespetatuz.



5. Horrelako erakunde publiko-privatuetan parte hartzen duten enpresek saihestu egin behar dute beren jokabidea bateratuko lukeen informazio sentikorra edo estrategikoa trukitzea.



6. Proiektu publiko-pribatuetan parte hartzen duten enpresek muturreraino eraman behar dute beren portaera, beste enpresekiko harremanetan ez dadin ulertu haien aurrean baterako jarduera erreaktiboa dagoenik.



7. Lankidetzan publiko-pribatuetan parte hartzen duten enpresek, ondasun eta zerbitzu jakin batzuk beren hornitzaileekin batera kontratatzen badituzte, lehia defendatzeko arauekin bateragarria den moduan egin behar dute.



8. Lankidetzan publiko-pribatuko proiektuetan parte hartzen duten enpresek, ondasunak edo zerbitzuak batera merkaturatzen badituzte, lehia defendatzeko arauekin bateragarria den moduan egin behar dute.



9. Lankidetzan publiko-pribatuko proiektuetan parte hartzen duten enpresek bermatu behar dute ezagutza gainerako enpresa parte-hartzaileei helarazten zaiela.



10. Oso gomendagarria da proiektu publiko-pribatuetan parte hartzen duten enpresek lehiaren arloko compliance programak izatea.